

BUSTURIALDEKO
HITZA

GAIAK

IRITZIA

HERRIAK

MULTIMEDIA

PAPERKOA

AGENDA

BIDEO ERREPORTAJEAK

Nork E.M.U. -Mar 16, 201

LEA-ARTIBAICO ONDAREARI BURUZKO JARDUNALDIA, MARKINA-XEMEINEN

Markina-Xemeinen kokatzen den Lea-Artibai Berrikuntza Gunea eskualdeko ondareari buruz hitz egiteko topagune bihurtuko da gaur goizean. 10:00etan hasi eta 13:00ak arte, Lea-Artibaiko Ondareari buruzko jardunaldia egingo da bertan.

Industria ondarean adituak diren Ondartez enpresako Beatriz Herreras eta ondarearen berreskurapenerako lanetan adituak diren Landa-Otxandiano arkitektoak parte hartuko dute jardunaldian, Leartibai Garapen Agentziako lehendakari eta turismo teknikariagaz batera.

Jardunaldia, gainera, eskualdean martxan jarri den itsas zein ibai lurraldeetan kostaldeko kultura ondarea kudeatzeko lurralde politikak hobetzea helburu duen Hericoast proiektu europarra aurkezteko topagunea ere izango da.

Hiru hitzaldi

Jesus Iriondo Leartibai Garapen Agentziako lehendakariaren ongietorriagaz hasiko da jardunaldia. Nekane Irusta Leartibai Garapen Agentziako turismo teknikariak Hericoast proiektuari buruzko azalpenak emango ditu ondoren, kostaldeko eskualdeetako natur eta kultur kudeaketaz ariko delarik. Jarraian, Lea-Artibaiko ondare eta paisaia naturalaz hitz egingo du Ondarez enpresako Beatriz Herrerasak, eta Añanako Gatz Haranaren berreskurapenagaz jarraituko dute Mikel Landak eta Alazne Otxandianok.

E.M.U.

• LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKUKO •

HITZA

GAIAK

IRITZIA

HERRIAK

MULTIMEDIA

AGENDA

BIDEO ERREPORTAJEAK

ATAL BEREZIAK

ZOKKETAK

noticia: Eider mugartegi -Mar 15, 2017

LEA-ARTIBAIKO ONDAREARI BURUZKO
JARDUNALDIA, MARKINA-XEMEINEN

10:00etan hasi eta 13:00ak arte Markina-Xemeinen kokatzen den Lea-Artibai Berrikuntza Gunea eskualdeko ondareari buruz hitz egiteko topagune bihurtuko da bihar [martxoak 16]. Industria ondarean adituak diren Ondartez enpresako **Beatriz Herreras** eta ondarearen berreskurapenerako lanetan espezializatutako **Landa-Otxandiano arkitektoak** parte hartuko dute jardunaldian, Leartibai Garapen Agentziako lehendakaria eta turismo teknikariarekin batera.



San Juan Talakoko itsaslabarra.

Topaketa, gainera, eskualdean martxan jarri den itsas- zein ibai-lurraldeetan kostaldeko kultura ondarea kudeatzeko lurralde politikak hobetzea helburu duen **Hericoast** proiektu europarra aurkezteko topagunea ere izango da.

Jesus Iriondo Leartibai Garapen Agentziako lehendakariaren ongietorriagaz hasiko da jardunaldia. Nekane Irusta Leartibai Garapen Agentziako turismo teknikariak Hericoast proiektuari buruzko azalpenak emango ditu ondoren, kostaldeko eskualdeetako natur eta kultur kudeaketaz ariko delarik. Jarraian Lea-Artibaiko ondare eta paisaia naturalaz hitz egingo du Ondarez enpresako Beatriz Herreras, eta Añanako Gatz Haranaren berreskurapenarekin jarraituko dute Mikel Landak eta Alazne Otxandianok.